


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,1 jaitsi dira 2005eko uztailean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko uztailetik 2005eko uztailera) eraikuntzaren kostuak %5,0 igo dira.

EAEEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,1eko beherakada izan du 2005eko uztailean, aurreko hilabetearekin erkatuta. Horrela, eta EUSTATEN datuen arabera, hilabete horretako urte arteko tasa %5,0raino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Hazkundea uztaileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko uztailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,1eko beherakada izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute. Eraikuntzak %0,1eko beherakada izan du aurreko hilabetearekiko, eta Obra Zibilaren lehengaien kostuek %0,3koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da ibilbide antzekoak dituztela: Eraikuntzako lehengaien kostuak %5,4 igo dira, eta Obra Zibilekoak, %4,6.

Uztailean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, *petrolioaren eratorrietan* (%3,5), *kare, igeltsu eta eskaiolan* (%2,6), *asfaltozko produktuetan* (%2,1) eta *beiran* (%1,1) kontsumitutako lehengaietan eman da. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: *metalezko tutuerietan* (%-4,6), *lehergailu eta gasetan* (%-1,5), *erauzketa-agregakinetan* (%-0,7) eta *lur egosietan* (%-0,4).

Sektorean kontsumitutako lehengaien prezioen artean, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak hauexek dira: *asfaltozko produktuak* (%27,1), *petrolioaren eratorriak* (%26,6), *burdina eta altzairua* (%14,1), *harri landua* (%11,8) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%6,7). Bestetik, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak murriztu egin dira: *bulegoko materiala* (%-2,5) *energia elektrikoa* (%-2,1), *beira* (%-1,8) eta *metalezko egiturak eta galdaragintza* (%-1,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005EKO UZTAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,4	-0,1	5,0	3,6	
ERAIKINAK	119,4	0,0	5,1	3,6	
OBRA ZIBILA	119,7	-0,2	4,6	3,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	116,6	-0,1	5,2	3,2	
ERAIKINAK	116,6	-0,1	5,4	3,1	
OBRA ZIBILA	116,2	-0,3	4,6	3,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp